



Birziklapena eta gaikako bilketa



1. Helburua

Birziklatzeko beharra eta ingurumenean dituen onurak ezagutzea.

Hondakinen gaikako bilketarako edukiontziak eta lekuak ezagutzea.

Gaikako bilketa egiteko, hondakin bakoitza non ipintzen den ikastea.

Eguneroko bizitzan erabiltzen diren plastiko motak eta horien ezaugarriak ezagutzea.

Birziklatzeko metodoak eta birziklatzeak ingurumenean dituen ondorioak ezagutzea.

Hondakin organikoen tratamendurako sistemak ezagutzea.

Ikasleen udalerrietan edo zentroetan aplikagarriak diren eta ingurumenarekiko erantzukizunari eusten dioten jardunei buruz hausnartzea.

2. Edukiak

- Birziklatzearen garrantzia ingurumenerako.
- Hondakinen gaikako bilketa: hondakinak gordetzeko edukiontziak eta lekuak.
- Hondakinen birziklapena.
- Plastikoak: motak eta ezaugarriak.
- Birziklapen-metodoak
- Hondakin organikoen tratamendurako sistemak.

3. Ariketak

3.1. Aurretikoa

Aldez aurreko ezagutzak aktibatzen eta birziklatzearen eta gaikako bilketaren inguruan ikasleen jakintza- eta inplikazio-maila balioesteko baliagarria izango den galdesorta bat da.

Marka ezazu aukeratzen duzun erantzuna. zenbait galderatan, erantzun bat baino gehiago marka daiteke

1. Zure etxean hondakinak gaika bereizten dira?

- Beti.
- Oro har bai.
- Noizean behin.
- Inoiz ez.
- Inoiz ez

2. Garrantziko eta beharrezko deritzozu hondakinak gaika bereizteari?

- BAI
- EZ

3. Ba al dakizu edukiontzi bakoitzean bota beharreko hondakin motak zein diren?

- Bai, badakizkit bakoitzean doazen edukiontzi mota guztiak.
- Oro har bai, baina badut zalantzaren bat.
- Ez oso ondo.
- Oso gutxi.

4. Adieraz ezazu hondakin hauetatik zein bota behar diren edukiontzi HORIAN.

- Papera
- Latak.
- Aluminiozko papera.
- Tupperware-a.
- Banana azala.
- Artilezko jertsea.
- Pilak.
- Tetrabrick-a.
- Kristalezko potea.
- Plastikozko poltsa.
- Etxetresna elektrikoak.
- Metalezko pote tapa.

5. Zer da PUNTU BERDEA?

- Eurentzako edukiontzirik ez duten hondakin bereziak eramateko tokia.
- Edonolako hondakinak eramateko tokia. Han, bereizi eta gaika sailkatzen dituzte berehala.

6. Ba al dakizu puntu berdea noiz pasatzen den zure auzotik?

- BAI
- EZ

7. Hondakin hauetatik guztietatik, zein eramango zenuke puntu berdera?

- Bideo zinta.
- Detergente ontzia.
- Lisaburdina zaharra.
- Egunkaria.
- Olio.
- Erradiografia.

8. Kaletik zoazela produkturen bat kontsumitzen baduzu, zer egiten duzu bilgarriarekin?

- Normalean, lurrera botatzen dut.
- Gertuen daukadan paperontzira botatzen dut.
- Gorde egiten dut, hondakin motaren arabera dagokion edukiontzira botatzeko.

9. Zaborra eta bilgarriak lurrera botatzen dituzu?

- Inoiz ere ez, errespetu falta iruditzen zait.
- Batzuetan, inguruan paperontzirik ez daukadanean.
- Askotan. Ohitura hori daukat, eta konturatu gabe egiten dut.
- Oro har bai.

10. Gogoko duzun tokiren batera (hondartza, mendia...) joaten zarenean, han zaborra aurkitzea gustatzen zaizu?

- Ez zait gustatzen, baina ez dit axola.
- Izugarriko enbarazua egiten dit tokia zikin egoteak.
- Berdin dit, ez diot horri erreparatzen.

11. Okindegian, dendariak zuk erositako ogia poltsan jarri dizu.

- Poltsarik ez emateko esaten diot.
- Poltsa ematen ez badit, eskatu egiten diot.
- Poltsa hartuta etxera joaten naiz, horixe baitan erosoena.
- Poltsarik ez jartzeko eskatu nahi nioke, baina ez naiz ausartzen.

12. Zenbait fruitu dendatan, ohitura da eskatzen duzun fruitu mota bakoitzerako poltsa bat jartzea.

- Nik, elkarrekin jartzeko modukoak diren gauza handiak, poltsatxorik gabe denak batera ipintzeko eskatzen diet.
- Gauza bakoitza bere poltsan jartzea gustatzen zait. Beraz, ez dut ezer esaten.
- Ez zait gustatzen, baina ez naiz ezer esatera ausartzen.

13. Ba al dakizu plastiko guztiak ez direla berdinak?

- BAI
- EZ

14. Ba al dakizu plastiko mota bakoitza bereizten?

- BAI
- EZ

15. Produktu bat erostean, aukeratzeko irizpide gisa kontuan hartzen al duzu zer ontzi mota duen?

- BAI
- EZ

16. Ondorengo ontzi mota hauetatik, adierazi zure ustez zein den ingurumena gutxien hondatzen duena.

- Tetrabrick-a
- Beira
- Lata
- Plastikoa

17. Zer egiten duzu arropa dendetako poltsekin?

- o Zaborrera bota, etxera heldu eta arropa atera bezain laster.
- o Berrerabili.

3.2. Tailerrari dagokionez

ARIKETA 1: SARRERAKO DEBATEA

Taldeak eta bikoteak sortuko dira sarrerako jarduera honetan, birziklatzearen erantzukizunari buruzko debatea izan dezaten.

ARIKETA 2: NON UZTEN DIRA HONDAKINAK?

Jarduera honetan taldea azpitaldeetan banatuko da, eta hondakinen irudiak dituzten fitxak emango zaizkie. Fitxak hondakinari dagokion edukiontzian kokatu beharko dira, edo dagokion gaikako bilketako lekura eraman. Gero, lana zuzenduko da eta prestatzaileak herri-hondakinen sailkapenari, gaikako bilketari eta birziklapenari buruzko azalpenak emango ditu.

ARIKETA 3: PLASTIKO GUZTIAK BERDINAK AL DIRA?

Taldetan banatuta, ikasleek hainbat ontziren plastiko-motak identifikatuko dituzte, mota bakoitzaren ezaugarriak eta informazio horrek plastikoen birziklapenean duen garrantzia aztertuz, eta horretarako fitxa bati eta prestatzaileak emandako azalpenei jarraituko zaie.

ARIKETA 4: BIRZIKLAPENAREN MAILAK

Prestatzaileak emandako informazioa oinarritzat hartuta, ikasleek birziklapen-metodoak puntuatuko dituzte, ingurumenean duten inpaktuaren arabera.

ARIKETA 5: ZER EGITEN DA HONDAKIN ORGANIKOEKIN?

Ikasleek biogasa ateratzen duen kontrolatutako zabortegei bat, erraustegi bat eta konposta zer diren azalduko duten web-orriak bisitatuko dituzte.

ARIKETA 6: HONDAKINEN TRATAMENDURAKO PROGRAMA POLITIKOA

Taldetan banatuta, hondakinen ingurumen-inpaktua txikitzen duten jardunak azalduko dituen programa bat landuko dute. Programa ezagutarazteko, aurkezpen bat egingo dute. Programa guztiak ezagutu ondoren, bozketa egingo dute, eta ikastetxean aplikatzeko proposamen gisa aurkeztuko den programa erabakiko da.

4. Gaitasunekiko lotura

4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia	Elkarbizitzarako konpetentzia	Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
✓	✓	✓	✓

Izaten ikasteko konpetentzia	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia	Matematikarako konpetentzia	Zientziarako konpetentzia
✓	✓		

Teknologiarako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	Arterako konpetentzia	Konpetentzia motorra

4.2. Beste talde batzuk

Ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna	Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna	Matematika-gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean	Gaitasun digitala

Ikasten ikasteko gaitasuna	Gaitasun soziala eta zibikoa	Ekimenaren zentzua eta enpresa-espirtua	Kultura-arloko kontzientzia eta adierazpena
✓			

5. Baliabideak

Informazio gidak

- KONTSUMITZAILE ETA ERABILITZAILEAREN GIDA. Eusko Jaurjaritza. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. 2007.
- KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. 2009

Material didaktikoak

- KONTSUMITZAILEAREN HEZKUNTZARAKO 133 TAILER. Eusko Jaurjaritzaren Kontsumo Zuzendaritza. 2004.
- KONTSUMITZAILE GAZTEA CD-ROMA. Kontsumitzailearen Heziketarako Sarea. 2001

Web orrialdeak

- KONTSUMOBIDEREN WEBGUNEA
www.kontsumobide.eus
- KONTSUMOPOLIS IZENeko LEHIAKETAREN WEBGUNEA.
<http://www.consumopolis.es/fichasniv2.aspx?idioma=cas&b=C>
- ETXEKO BIRZIKLAPEN-ESKOLA
<http://escuelas.consumer.es/web/es/reciclaje/online/mapa01.php>
- ZABORREN BILKETA PNEUMATIKOA
http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/urbano/2003/04/23/60476.php

Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

formacion-araba@kontsumobide.eus

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

formacion-bizkaia@kontsumobide.eus

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus